

Cash Mob-a gaur Altsasun, Abian-ek deituta



Sakanerria >> 5

Garik bere azken diskoa aurkeztuko du larunbatean Altsasun, Berria egunkariaren 10. urteurren ospakizunen barruan



Kultura >> 15

Irurtzungo eskolan egungo ordutegia mantenduko dute >>7

Lazaro Echeverriako langileek Iruñera martxa >>7

Lactuyogurrak aurkeztu dituzte >>10

Goi tentsioko linearen kontrako mendi martxa etzi Arakilen >>6

Inasako inbertitzailea etorriko da
Langileek prozesua gelditzeko helegitea aurkeztu dute >>7



Adolfo Araiz eta Aitor Karasatorre atzo azalpenak ematen.

Hondakin bilketa sistema berria 27rako

>>3

Igandean jokatu da Lakuntza-Aralar mendi lasterketa >>13

Altsasuko Mendi Bizikleta Zeharkaldia igandean izanen da >>12

Kulturarekin on egin

Altsasun, 2013ko ekainak 8

Arkangoa - Basomutur
- Biltoki - Il Padrino
- Iru bide - Iruña bide
- Kaixo

%15 eko deskontua afarian lortuako kultur sarrera erakutsita

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminiua-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Nahia Senar Ormazabal
Saiatu zara eta azkenean lortu duzu.
ZORIONAK txapelduna!! Maite zaitugu!!



Amaiur ZORIONAK maitea zure 6. urtebetetzean!! Ongi pasa. Muxu handi bat. Aiiituna, amiña eta osaba Eñauten partetik.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

19:00etan Bakaikuko udaletxeko areto handian.

Mendi irteera

Otsobi-Satrustegi. Goi tentsioko linearen kontra. Garagarriaren 9an, igandean, 9:00etan Otsobin.

Pagoeta. Garagarriaren 9an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak.



Txirindula irteerak

XVIII. Altsasuko zeharkaldia. Garagarriaren 9an, domekan, 9:00etan Altsasuko Foru plazatik. 50 km.

Ibilbidea

Oihanetik itsasora. Garagarriaren 8an, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko estalopetik.

Erakusketak

Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Garagarriaren 19an, larunbatean, 19:30etik aurrera eta garagarriaren 20an, igandean, goizez, mendi proba jokatzeko den bitartean. **Zabalarte Kluba.**

Itziar Nazabal arte eskola.

Garagarriaren 16ra arte Altsasuko

lortia kultur gunean.

Literatura

El sol de los Scorta. Garagarriaren 7an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko Klinter tabernan. Afaria eta tertulia.

Bestelakoak

Luis Fuentes eskolaren eguna. Garagarriaren 8an, larunbatean, goizean hasita Lakuntzan.

Deialdiak

Cash mob. Garagarriaren 7an, ostiralean, 17:30ean Altsasuko plazatik. **Abian.**

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Garagarriaren 7an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 7an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Goi tentsioren kontra.

Garagarriaren 9an, igandean, 14:00etan Zuhatzun.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada.

Garagarriaren 10ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

garagarriak

7-13

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gitarra ikasleak. Garagarriaren 7an, ostiralean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Gari. Garagarriaren 8an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Berriak 10 urte.



Las dos D. Garagarriaren 9an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Ikasturte akaberako emanaldia. Garagarriaren 11n, asteartean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Musika eskolako ikasleak.**

Antzerkia

Cerdo agridulce. Garagarriaren 7an, ostiralean, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Iluna producciones.**

Dokumentalak

El gran golpe: la desaparición de la CAN. Garagarriaren 7an, ostiralean,

Guaixe rekin Gari ren kontzertura

Sarreraren irabazleak:

Jaxone Mendiola Margari Zabala

Zorionak!



107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak,
Alde hemendik, Sexu erasorik ez, Lazaro Echeverria...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

URBASAKO KANPINAK ITXITA SEGIKO DU: Nafarroako Gobernuak Urbasako kanpinaren kudeaketa lehiaketa bidez eman nahi zuen. Baina kanpinaren kudeaketa lehiaketa

ta hutsik gelditu da. Gauden garaian egonda, horrek esan nahi du Urbasako kanpinak udan ziurrenik ez duela aterik zabalduko.

ezkaatza >>

SAKANA

Hilaren 27an zortzi herritan hasiko da hondakin bilketa berria

Hondakinak bota edota nahastu beharrean aprobetxatu egin nahi dira, birziklatze tasa %25etik %80ra igoaraziz

Sakanako Mankomunitateko presidentea eta kudeatzaile Aitor Karasatorrek eta Adolfo Araizek Iruñean eman zuten prentsaurrekoan jakinarazi zuten hilaren 27an jarriko dela martxan hondakin bilketa sistema berria. Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizon, Etxarri Aranzaten, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian hasiko dira egunero hondakinak gaitzartzen. Ondorenekarpen guneak dituzten herri txikiak batuko dira bilketa sistema berria: "hondakirik ongi prestatu nahi dira eta herriz herri egokitu behar dira". Horren berri laster jakinaraziko du Mank-ek.

Atzoko agerraldian Karasatorrek esan zuenez, "prest gaude. Bai sakandarrak parte hartze prozesuan zalantzak argitu, sistema egokitu eta ekarpenak egin ondo-

ren; bai gu, sistemak behar duen guztia prest dugulako".

Organikoarekin hasi

Garagarzaroaren 27a osteguna da, beraz, Mank hondakin organikoak biltzen hasiko da herri horietan. Arduradunek azaldu zuten, "erabaki dugu frakzio horrekin hasi behar dela bizilagunen artean egiaztatu dugulako jendea gehien kezkatzen duen materia organikoa dela".

Hala ere, 4.000 pertsona inguru ez zaio hondakin organikorik jasoko konposta edo auzokonposta eginen dutelako. Mank-etikadieraziz dutenez, bideragarritasun planean 2.800 etxeetan konposta egiteko aukera aurreikusi zuten eta "kopuru horretara hurbiltzen ari gara". Auzo konposta egiteko 2.000 pertsona eman dute izena. Materia organikoa aprobetxatuko dute guztiek. Kopuruek adierazten dute hondakin organikoaren birziklatzea handitu egingen dela, eta ibarreko birziklatze tasa orokorra. Hori da hain zuzen ere Mank-ek sistema berriarekin lortu nahi duena.



Adolfo Araizek eta Aitor Karasatorrek eman zituzten azalpenak. UTZITAKOIA

Hondakin bat eguneko

Sistema berria ezarriko den zortzi herrietan Mank-eko langileak asteazkenetik aurreratik 20:00etatik 6:00etara egingen dute bilketa. Baina sakandarrak hondakina bezperako 20:00etatik ateratzeko aukera izanen dute. Larrialdi guneak ere martxan jarriko dituzte. Hondakin baten kantitate handietan dituenak edo oporretara joaten denak haieten uzteko aukera izan dezaten.

batetan errefusa. Mank-eko langileek 6:00etatik 14:00etara egingen dute bilketa. Baina sakandarrak hondakina bezperako 20:00etatik ateratzeko aukera izanen dute. Larrialdi guneak ere martxan jarriko dituzte. Hondakin baten kantitate handietan dituenak edo oporretara joaten denak haieten uzteko aukera izan dezaten.

Informazioarako

Mank-eko telefonoa hots egin daiteke: 900 730 450. Posta elektronikoa info@sakana-mank.com helbidera zuzendu daiteke. www.sakana-mank.com/hondakinak blogean ere argibideak daude.

1.800 parte-hartzaile

Jende kopuru hori izan da hondakin sistema ezarri aurretik Mank-ek aurtun 28 herrietan egin dituen 48 bileretan. Esker ona azaldu die Mank-ek.

%42,1

Sakanako populazioaren kopuru hori dute (8.744 biztanle) bilketa sistema berria hasiko duten zortzi herriek.

Sakanan egina



Mank-ek hondakin sistema berria ezartzeko ordan ibarreko enpresekin lan egin du, "Mank-ek bezain ongi ezagutzen dutelako eskualdea". Aurtengo negu eta udaberriaren ondoren hautatutako materialen "indarra eta egokitasuna" ziurtatu izan dela adierazi dute Mank-eko buruek. Aurrekontuari dagokionez, aurreikusitako 1.017.000 euroetatik 750.000ra jaitsi dela adierazi

dute Mank-etik. Eta gaineratu dute aurrekontuaren %68a Sakanako 20 bat enpresetan gastatu dela, besteak beste, Carpintería Garcandía, Igoarkin Estudio Arquitectura eta Talleres Irulizar. Aldi berean, Etxarri Aranzaten 60 familiendako jarritako konpostatze etxolak hainbat udal eta mankomunitateren interesa piztu dituela azaldu zuten: "bisitak egiten ari dira eremuaren aban-

tailak egiaztatze". Bisita horien bidez Mank-ek proiektuan parte hartu duten enpresetara bideratu dituzte interesa agertu duten guztiak eta eskaera berriak jaso dituzte, "auzokonpostaren eta posteen inguruan hainbat berrikuntza sortu dira ibarrean". Hondakin sistema berriak 9 lanpostu sortu ditu dagoeneko eta "konpostatzeak beharko duen jarraipenarekin kopurua handitzea" espe-

ro dute. Sakanan bertan konpostatze planta bat irekitzeko asmoa ere gogora ekarri dute. Adituen usteak bere eginez, Mank-en sinisten dute etorkizunean lanpostuak sortzeko aukerarik handienak ekonomia iraunkorak edo berdeak ematen dutela: "birziklapen tasa hobek izanik, lehengai horiekin lan eta produktu berriak sortzeko aukerak zabaltzen zaizkigu, eta lanpostuak sortzeko aukera".

UPNk Nafarroan 5. edukiontzia besterik ez du nahi

Asteartean UPNk Nafarroako Parlamentuan idatzia aurkeztu zuen eskaera horrekin. UPNk nahi du parlamentuak eska diezaiola Nafarroako Gobernuari indarrean dagoen Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua moldatu dezala eta Nafarroan hondakin organikoak jasotzeko aukera bakarra 5. edukiontzia izatea. Aldi berean, UPNren eskaerak gehitzen du Sakanako Mankomunitateari eta bere baitan dauden udalei exijitza "berehala geldiarazi dezatela inposatu nahi duten atez ateko bilketaren ezarpena".



Hondakin bilketa berrirako prest

Uharte Arakil, Lakuntza eta Urdiainen hasi da aste honetan Sakanako Mankomunitateak hondakin bilketa sistema berrirako kit-ak banatzen. Hiru herrietako bizilagunek hondakin organikorako kubo marroia, beste frakzioendako kubo grisa eta sistema berriari buruzko informazio materialak jaso dituzte (sistemaren funtzionamenduari buruzko gida, hondakin hiztegia hondakin bakoitza nora eramanez jakiteko eta kartel eta iman bat egutegia gogorarazteko).

Herriaren arabera batzuetan gehiago besteetan gutxiago izan

Egitaraua

>> Garagarriak 10, astelehena

Arbizun, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara udaletxean.

>> Garagarriak 11, asteartea

Etxarri Aranzaten, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara estalopean.

>> Garagarriak 12, asteazkena

Etxarri Aranzaten, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara estalopean.

>> Garagarriak 13, osteguna

Olaztin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.

>> Garagarriak 14, ostirala

Olaztin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.

>> Garagarriak 17, astelehena

Bakaikun, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara udaletxeko goiko pisuan.

>> Garagarriak 18, asteartea

Iturmendin, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara frontoian.

dira kit horiek jasotzera joan direnak. Jasotze ezin izan dutenek hila- ren 18tik aurrera Irurtzungo, Etxarri Aranzako eta Olatzagutiko

bulegoetan jasotzeko aukera izanen dute. Hondakin bilketari buruzko bulegoak 10:00etatik 20:00etara zabalik izanen baitira.



Lakuntzan ontziak hartzen. UTZITAKOIA



Aingeru Mikeo

astekoa

Ameriketako Estatu Batuetako **ereduak**

Aurreko batean, Berria egunkari-ko gehigarrian irakurri nuen Ameriketako Estatu Batuetako ikasleek, ikasketak amaitzean, batez beste, 19.000 euroko zorra izaten dutela mailegutan. Ziur-rirenik, juxtuen dabiltzanek bikoitza izanen dute. Horietatik %10 ordaindu ezinik, lanbideak ikasitakoarekin ez du zerikusiri-

rik, eta bizimodua erabat baldintzaturik. Azken, 30 urtetan matrikula tasa %945 igo omen da, soldatak halako hamar. Mailegu burbuila honetan 725.000 milioiko zorra omen dago, adreiluarena baino okerragoa izaten ahal dena. Nonbait, egoera honetara ailegatu dira estatuko murrizketa nabarmenak egin

dituelako hezkuntzan. Orain, kezkatzen hasiak dira, baina, batez ere, finantziario erakundeak maileguak kobratzeko arazoak izaten hasi direnean. AEBn produktu gordinaren %19,4 bideratzen omen da hezkuntzara, Estatu espainiarrean %29 eta Belgikan %45.

Horixe da zerbitzu publikoak

pribatizatzearen aldeko gezurra: hasiera bateko eraginkortasunaren goxokia; behin liberalizatuta, prezioen igoera abusiboa; negozio jabeen irabazi lukratiboak; elite batentzat estatuta; eta jende xumearentzako ezintasuna. Eta noizbait sektoreak galerak baditu, estatua- ren interbentzioa diru publiko-

arekin.

'Arlo publikoaren gehiegizko gastuak eta funtzionario alfer- rarak' liberalizazioaren alde egi- ten dutenen leloa. Ezinbesteko neurriak omen direnak, gezu- rrarenak dira. Gizartearen abe- rastasuna egon badago, baina gutxi batzuek bahituta dago.

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Pentsio publiko duin eta justuak

Gastuak gutxitu nahi ditu Gobernuak, horretarako asko dutenei kendu ordez ahulenok eraso gaituzte. Irakaskuntzan, osasungintzan, kulturaren eta behartsuei laguntzetan ezarri dituzte orain arte murrizketak. Nagusioi gure ekonomia ahalmena gutxitzen joan dira, botikak ordainaraziz gain gaixo kroniko, protesi eta menpekotasun ezberdinak dituztenei sufrimendua eta marjina-

zioa ezarri. Beldur ginen eta etorri da, pentsioak eta pentsio- dunak eraso dituzte orain. Gehitu egiten omen da zaharren kopurua, gehiago biziko omengarai gainera, eta horrek hondatuko omen du Segurtasun Soziala. Erretiro- rako adina luzatu, aurrejubila- zioak oztopatu, eta denen aho- tan dagoen delako "sostenibilita- tea" ezartzea dute helburu. "Sostenibilitatea": Segurtasun

Sozialaren iraunkortasuna edo sostengarritasuna segurtatu behar dela esan nahi du, hau da pentsioak ez dira prezioen ara- bera eguneratuko; horrez gain pentsiook arraseta azkar murriz- tu, gutxitu, egiten dituzte, eko- nomiaren agindura. Ez dute gol- pera egiten, gradualki baizik, poliki-poliki, bai denboran bai kantitatean ere, orain arte beza- la baina gordinago. Gure gaurko

eta geroko pentsioak daude jokoan. Pentsio pribatuak bultzatzen ditu sistema berriak, finantza taldeen onurarako. Oraindik areago pobretu nahi gaituzte. Gure zahartzarora gaitzotuko dute. Pentsio sistema publiko duina, zuzena eta iraunkorra da defendatu behar duguna. Gure bizitzako azken zati hau osasun- tsu, babestuta, eta segurtasune- an bizitzeko eskubidea defenda-

tzen dugu. Gure erretiro urte- ak duintasunez bizi ahal izateko, elkartuta, borrokatu behar gara.

sasoi
nafarroako jubilatuena elkartea
asociación de jubilados de navarra

hara zer dien

25 urte ospatzeko aukerarik bai?

2014an Altsasu, Olazti eta Ziordiko Mankomunitateak ospakizun berezia egiteko asmoa du. Babestutako Gizarte Lana Programak 25 urte beteko ditu eta teknikariak, ospatzeko gogoekin daude aukera izanez gero.

Denok dakigun moduan, Babestutako Gizarte Lana etekin gabeko eta elkarlana sustatzeko proiektua da eta lan normalizaturako zailtasunak dituzten pertsonen kontratazio lanak burutzeko helburua du. Parte hartzaile bakoitzaren ezaugarri sozio- pertsonalei erantzuteko, lan ordaindua, konpainia soziala,

lan trebetasunak eta gaitasun sozialak sustatzen dira, hauek guztiak gizarteratze ibilbide batean kokatuz.

25 urte hauetan ehunka pertsonak parte hartu dute lan ezberdinak egiten (San Juan ermitaren konponketa, erraldoi eta buruhandien zaharberri- tzea, San Pedroko kanpako langak eta azken urte hauetan bereziki kaleko garbiketarak eta lorezaintza...)

Nafarroako Gobernuak proiektu hauen aurrekontua %70ean gutxitu du azken 3 urte- tan, baina 2013ko deialdiaren

arabera, bertan azaltzen diren aldaketa eta irizpide berrien ondorioz, mendialdeko herriak oraindik kaltetuagoak izanen dira, portzentaje hau %85era igoko baita.

Ustekabeko murrizketa latz honek, kolokan jarri du gure BGL. Adibidez, abuztutik aurrera Altsasuk ez du parte hartzaile- rik izango eta Olazti eta Ziordirako pertsona bat bakarrik izango dute 4 hilabetetan, hainbat eta hainbat pertsonen gizar- teratze ibilbidea bertan behera geldituz eta orain arte jasotzen zuten babesegoera eta baita etor-

kizunean aurrera jarraitzeko aukera ere.

Altsasu, Olazti eta Ziordirako Babestutako Gizarte Lana erre- ferente bat izan da azken 24 urte hauetan eta horrela jarraitu nahi dugu beste 25 urtetan. Horre- gatik gure esku dagoena egiten ari gara eta bide beretik jarrai- tuko dugu, hurrengo urtean ospa- kizun berezia egin ahal izateko.

Babestu dezagun babestutako gizarte lana!!!

Gizarte zerbitzuak

gora/behera



Dendak

Herriko merkataritzaren aldeko jardueraren parte- hartzailea dago gaurko deituta: Cash Mob-a.



Sexu indarkeria

Laudio, Bilbo... Berdin dio tokiak, izugarrikeria berdina da.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Oihana Zubeldia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

LANGABEZIAK BEHERA: Maiatzean 20 pertsonak opatu dute lana Altsasuko enplegu bulegoaren bidez, %1,18ko jaitsiera. Guztira 1.669 sakandar daude izena emanda bule-

goan. Maiatzean Altsasuko bulegoaren bidez 394 kontratu itxi ziren eta haietatik 35 besterik ez ziren mugagabeak izan.

sakanerria >>

SAKANA

Cash Mob-ean parte hartzera gonbidatu du Abian-ek

Gaur, 17:30ean, Altsasuko Foru plazan dago hitzordua jarrita

Bat bateko dantzen edo flash mob-etatik hartu du izena gaur egingen den ekimenak: cash mob-a. Bere helburua da jende talde bat biltzea eta tokiko denda txikietan erosketak masiboak egitea, haiek lagundu eta sustatzeko. Azken batean, erosketak eginez establezimendu

txikiak hazten lagundu, jendea zoriontsu egin, zerbait erosi eta denbora tarte bat gustura pasatzeko aukera da cash mob-a.

Nazioartean bide egiten ari den ekimen hori Altsasura ekarri du Abian plataformak, *Sakanan bizi eta erosi* kanpainaren barruan. Cash mob-ean parte hartzeko "laguntzeko, jende berria ezagutu

eta gozatzeko gogoia besterik ez da behar" azaldu digu Abian-ekokide batek. Gaurko deitu duen cash-mob-arekin Altsasuko denda txikietan "eragin positiboa sortu nahi dugu, ongi pasatzen dugun bitartean". Parte-hartzaile bakoitzak zehaztuko du zenbat diru gastatu behar duen. Ez du asko izan beharrik. Parte hartzeko deia egin dute.



Jendeak denda txikietan erosketak egingen ditu, haiei bultzada emateko.



Ekintzaileendako Kedada

Hilaren 19an, Altsasuko kultur etxean, negozioa martxan jarri nahi dutenak eta finkatu nahi dutenak bilduko dira

Cederna-Garalurrek antolatuta, enpresarekin lotura duten pertso-

nak eta ekintzaileak harremanetan jartzeko helburuarekin, enpresa bat martxan jarri nahi duten ekintzaileei edo finkatze-fasean dauden enpresei sostengua ema-

nen dieten soluzioak eta ideiak bilatzeko baliagarriak izan diren esperientziak eta ikuspuntuak trukatu dira Kedadan.

Antolatzaileek foro ireki bat sor-

tu nahi dute, "enpresa guztiek, oraindik finkatu gabeak eta sortu gabeak, esperientziak trukatzeko espazio komunak behar dituzte, ezagutza sortzeko baliagarriak izan direnak". Eta krisia aldaketarako eta lan-modu berriak sortzeko aukera dela ere erakutsi nahi da.

Harremanetarako

Susana Mendinueta, Cederna Garalurreko Sakanako Garapen Agenteari hots egin: 948 567010 edo 639 900 336 telefonoetara.

Arbizu / Etxarri Aranatz

UEMA eguna bihar



UEMA eguneko kartela.

Arabako Aramaio herriak hartuko du bihar Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eguna. UEMAk populazioaren %70etik gora euskaldunak dituzten udalerriak biltzen ditu. Horien artean daude Arbizu eta Etxarri Aranatz. UEMArekin helburua dagune euskaldunetako euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal

Egitaraua

11:30ean Suziria. Kalejira trikitilari eta dantzariekin.

Goizean zehar Haurrendako puzgarriak, artisau azoka, talogileak eta sagardo salmenta.

12:00etan Herri kirol lehia: Goizueta-Aramaio.

13:00etan Ekitaldia plazan. Aramaioko abesbatzak eta bertsolariak parte hartuko dute.

14:00etan Herri bazkaria.

16:30ean *Ane eta piratak parrandan!* Irrien Lagunen ikuskizuna.

18:30ean Erromeria Zesuma taldearekin.

22:00etan Kontzertuak.

euskaldun guztiek in euskara nagusi izan den lur-gunea antolatzea. Aurtengo ospakizunerako *Aire berria euskarari* leloa aukeratu du.

SAKANA

Euskaltegia kalean



Zelandi eskolan izan zen saioetako bat. UTZITAKOA

Sakanako AEK-k ordu bateko doako euskara bi eskola saio eskaini ditu

Ordu bat doan dinamikaren barruan Sakanako AEK-k, aurreko asteko asteartean eta asteazkenean Zelandi ikastetxe publikoan eta Gure Etxea eraikina euskalte-

gi bihurtu zituen. Aurrenekoan, gurasoak izan ziren bildu zirenak eta, bigarrenetan, Sakanako Langabetuen Asanbladako kideak. Guztiei AEK zer den erakutsi eta egiten duen lana azaldu zieten.

Horrekin batera, AEK-k age-

rian utzi nahi izan du herritar helduek badutela euskara ikasteko gogoia, "baina, bide horretan, beharrezkoa da Administrazioak, Nafarroako Gobernuak, bere erantzukizuna hartzea". AEK-ko arduradun Patxi Floresek azaldu digunez, ezinbestekoa da helduen euskalduntzea aintzat hartzea eta normalizatzeko urratsak ematea. Floresek arduradun politikoei mezu zuzena luzatu die: "helduen euskalduntzeak planifikazioa, sustapena eta baliabideak behar ditu" Aldi berean, azken hamarkadan laguntzak erdira murriztu direla salatuz, "egun hutsaren hurrengo dira".

Floresek, bestalde, gogora ekarri du Sakanako hainbat udalek aurreko hilabeteetan helduen euskalduntzearen garrantzia aitortuz mozioak onartu dituztela.

Bazkide zozketa

Maiatzeko sarituak:

Milagros Lopez Garro

Ekainberri 2 sarrera + katxiporreta arropa+aquarium sarrera 1

Toñi Dominguez Galan

Katxiporreta arropa 1 + Donostiako aquariuma sarrera 1

Argiñe Berastegi

Katxiporreta arropa 1 + Donostiako aquariuma sarrera 1

Ana Maria Felisa Imaz Uberuaga

Katxiporreta arropa 1+ Donostiako aquariuma sarrera 1

GARAGARRILEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA
2- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

3- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA
4- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA



Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

erregai guztietan.

LORENA FRUTA DENDA IRURTZUN

%10eko deskontua fruta tropikaletan.

EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelak eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

MARIXELE

ETXARRI

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

60€tatik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko,

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100€rengatik txistorra opari.

SAKANA

Goi tentsioko mendi martxa

Igandean, 9:00etan, Otsobitik Satrustegira, 400 kV-eko linearen ibilbidea eta eraginak ezagutzeko

Autopista Elektrikorik Ez! plataformak antolatuta du etziko mendi martxa. Deikaztelu eta Itsasoarte anargindar linea berria eraikitze-ko Iza eta Arakilgo udalerrriak aukeratu ditu Red Electrica Española (REE).

Autopista Elektrikorik Ez! plataformaren iritziz 400 kV-eko lineak ez du "justifikazio sozial eta publiko erreal bat". Salatu duenez,

Sakanan ez da 400.000V-tatik etxean erabiltzen ditugun 220V-tara tentsioa jaitsiko duen instalaziorik. Beraz, Autopista Elektrikorik Ez! plataformak "energia elektrikoaren hornidurarekin lotutako arazoa konpontzearen arrazoia ezerezten du. Proiektu hau, energia enpresa handien negozio pribatuen parte dela ulertzen dugu".

Energia espekulazioaren kontrako mezua zabaldu du ere Autopista Elektrikorik Ez! plataformak.

Martxaz

Ahalik eta auto gutxien erabiltzeko Irurtzango Pikuxarren gelditu dira. Handik 8:45ean aterako dira. Abiatu aurretik, Otsobin gosaria izanen da. Bizkai lepoan geldialdia egingen dute. Ibilbidea Satrustegin despidituko dute, herri bazkari batekin. Mendi martxari, besteak beste babes azaldu diote: Arakilgo Udalak eta Errotzeko, Izurdiagako, Urritzolako, Ekaiko, Zuhatzuko eta Satrustegiko Kontzejuek. + www.guaixe.net



Berriki bizikletan protestatu zuten.

MOTZEAN

Tartalariak Madrilen epaituko dituzte

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako protesta batean Yolanda Barcina Angulori tartak botatzea- gatik auzipetutako lau tartalariak Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituko dituzte. AHTren kontrako Mugitu! Mugimenduko kideen abokatuaren iritziz gertakariak Frantzia gertatu zirenez han epaitu behar litzukete. Epaitegiak ez du hala interpretatu eta Madrilen epaituko dituzte Mugituko kideak. Horien artean dago Gorka Ovejero Ganboa arruazuarra.

Fiskaltzak autoritatearen kontrako atentatu leporatu die eta bakoitzaren 5 urteko espetxe zigorra eta 2.700 euroko isuna eskatzen du. Barcinaren, akusazio partikularren eskaerak handiagoak dira, Ovejeroendako eskaera 9 urteko espetxe zigorra eta 5.400 euroko isuna da. Arruazuko zinegotzi izateagatik handitu du harendako eskaera.

Herriko tabernen auzian auzipetuta

Espainiako Auzitegi Nazionalen lastailaren 17an hasiko da epaiketaren bitartean ETA finantzatzea leporatuta epaituko dituzte. Auzipetuen artean daude Juan Kruz Aldasoro, Jaione Intxaurre eta Joseba Garmendia. 110 herriko taberna ere epaituko dituzte "erantzule zibil" izatea egotzita. Baltasar Garzonen aginduz itxi zuten 2002ko agorrilaren 26an Altsasuko Herria Eginez elkartera.

Gaitz bat, ohe bat, ehun arte

Nafarroako Parlamentuaren aurrean ehun ohe eta bakoitzean gaixo bat. Eta gaixo bakoitzak zuen gaitzaren berri ematen zuen kartela eskuan. Protesta ikusgarri horrekin irudikatu zuen larunbatean 3 Mugak Batera (3MB) plataformak porlandegian errausteko balitz sortuko liratekeen gaitzak. 3MBk Nafarroako herritar guztiei, erakundeei, alderdi politikoei eta sindikatuei eskatu zien hondakinak errausketa "zer nolako basakeria den oharrezko". Errausketarik gabe hondakinak kudeatzeko beste eredu batzuen alde egiteko eskatu zuen 3MBk.

Jakinarazi zenez, "hondakinak errausten dituen zementu-fabrikak



Errausketak gaitzak sorrarazten dituela irudikatu zuten. UTZITAKOIA

batek, baztertuta izan den Energia Balioztatzeko Plantak baino 20-30 aldiz gaitasun handiagoa du gasak isurtzeko eta hedatzeko garaian".

3MBkoek azaldukoaren arabera, porlandegiko egitasmoa gauzatu balitz, "hondakin errauskailua arautzen duen dekretu berberaz

arautuko da, baina zenbait kutsa-tzaile arriskutsuren isurpen mugak HKNPIak egokiena bezala aurreikusten zuen eta Tafallan nahi izan ez duten azken teknologiadun plantan ezarritako mugak baino hiru aldiz handiagoak izanen dira".

3MBkoek gogora ekarri zuten ehunika ikerketa medikua eta zientifikok berretsi dutela "errausketa prozesuan isurtzen diren kutsa-tzaileekin lotuta dauden minbizi ugari hartzeko arriskua biderkatu egiten dela faktoria hiltzaile hauen ondoan, eta haurrak direla ondorio latzenak jasaten dituztenak". Porlandegiaren kokapenaz ere gaitzatu zuten: ibarraren ondoren, natur parkez inguratuta, eskolatik 460 m-ra eta herri osoa HKNPIak ezartzen duen 1.000 m-ko segurtasun eremuaren barnean.

Altsasu

Alde Hemendik herri mugimendua sortu da

Bere helburua da "indar okupatzaile guztiak Euskal Herritik joatea"

Euskal Herriko hainbat herrietako kideak presente zeudela, larunbatean aurkeztu zuen bere burua Alde Hemendik herri mugimendua Altsasun. Hiru eskaera plazaratu zituzten mugimendu berriko kideek. Lehenik, "indar okupatzaileen presentzia eta kontrolen amaiera lehenbailehen eman dadila. Inongo jazarpen eta mehatxurik gabe lasai eta aske bizitzeko eskubidea" aldarrikatu zuten.

Horrekin batera, "bake eta normalizazio politikora eramanen gaituen prozesu demokratikoa garatu ahal izateko euskal herritarren aurkako errepresio mota guztiak alboratzea" eskatu zuten. Horretarako "inongo inposizio eta mehatxu militarrik gabeko eszenatoki demokratikoa eta proiektu politiko guztiak egingarri izateko aukera" aldarrikatu dute Alde Hemendik-eko kideek.

Azken eskaera instituzioendako, "gatazkaren konponbidean



Frontoian aurkezpena eta kalean Guardia Zibila zegoen PPko en aktoa zaintzen.

Espainiatik eta Frantziatik etortako gorputz militarrik eta poli-

zialak Euskal Herritik alde egiteko eskaera egiteko eskatzen die-

gu". Eskaera horiek hilaren 15ean Euskal Herriko 15 herri eta hirietan egingen diren manifestazioetan zabalduko dituzte. Altsasun ere egingen da.

Atzetik

Prentsaurrekoa despiditu ondoren, mugimenduko kideek manifestazioa egin zuten Altsasun, Guardia Zibilak atzetik zituztela. Manifestariak alde hemendik, utzi bakean edo torturarik ez moduko leloak oihukatu zituzten. Ondoren, plazan, elizako paretan jarritako murala mustu zuten. Ekitaldia auzatearekin despiditu zen.

PIVE PLAN BIKAINA



PRECIOS SÚPER ESTRELLA

carstore.citroen.es - en

SERIE BEREZIA
CITROËN C4 HDi TONIC **13.300€***

CITROËN C-ELYSEE VTI EXCLUSIVE **10.500€***

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM):
CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148
CITROËN C-ELISÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*Citroën C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zentzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financearen bidez Citroën PREMIUM finantzatu luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukeena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzaketaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuekin, Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zentzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatu dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobestarako aseguruarekin kontratatuko dituztenak Banque PSA Financearen bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete akaberako eskaintza partehartzailen salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citroën C4 Exclusive eta Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

» Irurtzun

Eskolan ordutegi bera mantenduko da

Asteartean bozketa eguna zuten Atakondoa ikastetxe publikoan. Ikasleen gurasoek orain arteko jardunaldiarekin segitu edo jardunaldi jarraitua ezartzea erabaki behar zuten. 450 ikasleren 388 gurasok parte hartu zuten bozketan (%86). Aldaketaren alde 292 (%64,8) agertu ziren eta dagoenaren alde 94 (%20,8). Aldaketa egin ahal izate-

ko Hezkuntza Departamentuak parte-hartzaileen bi heren alde agertzea eskatzen du. Irurtzunen 8 botoen faltan gelditu dira.

Félix Rey Bakaikoa zuzendaria gurasoen parte hartzea eta inplikazioa nabarmendu ditu: "ikaragarria izan da. Ez genuen espero, kontuan izanda familien erdia beste herrietakoa dela".



Orain arteko ordutegi aldatzeko 8 boto gehiago behar ziren gutxienez.

Datuen bidez jendeak aldaketarako nahia azaldu duela ikusita, "orain denen artean asmatzea da".

Azaldu digunez, emaitzak lasaitasunez aztertuko dituzte zuzendaritzan eta guraso elkartean.

Proposatutako aldaketa

Gaur egun 9:30ean hasten dira klaseak Atakondoa. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 13:20an ateratzen dira. DBHkoak 14:20ean. Arratsaldean, 15:20etik 17:00etara aritzen dira guztiak. Garagarzaroan soilik dute goizeko ordutegia. Proposatutako jardunaldi jarraian arabera ikasleak 9:00etan sartuko liriteke klasera. HHkoak eta LHkoak 14:15ean aterako liriteke eta DBHkoak 15:15ean. Arratsalderako jardura boluntarioak aurreikusiak zeuden.

» Altsasu

Lazaro Echeverriatik Nafarroako Parlamentura, oinez

Martxarekin Gobernuari esku hartzeko eskatu nahi diote. Langileak 93 egun egin dituzte mugagabeko greban

Hiru hilabeteko grebaren ondoren, langileek diote ez dutela aukerarik izan kudeatzailearekin eseri eta iritziak trukatzeko ere. Horregatik, haien egoeraren berri Nafarroako Parlamentuan eman nahi dute eta

hark Nafarroako Gobernuari lan gatazkaren konponketan esku har dezala eskatuko dio.

Eskaera oinez eramanen dute Iruñera. Asteazkenean, 9:00etan, langileen biadar Lazaro Echeverriako bulegoetatik eta harrobitik abiatuko dira. 10:00etan Altsasuko udaltxean elkartuko dira. Han udala

osutzen duten taldeen babes jasozea espero dute. Eta bultzada horren ondoren, bideari ekinen diote.

Asteazkenean Lakuntzara arteko bidea egingen dute Lazaro Echeverriakoek. Ostegunean martxak Sarasa arte eramanen ditu. Baina bidean, eguerdian, geldialdia egingen dute Inasako langileekin

egon eta elkartasuna adierazteko. Azken etapa heldu den ostiralean egingen dute Sarasa eta Nafarroako Parlamentuaren artean. Hara eguerdian iritsi eta alderdiekin harremanak mantenduko dituzte. Lazaro Echeverriako langileek gonbitea luzatu diete sakandarrei haien martxara batzeko.



Langileak asteazkenean bilkuran.

» Irurtzun

Inasako langileek administratzaileari prozesua gelditzea eskatu diote

Gelditze helegite eskaera atzo egin zioten borrokan dauden Inasako langileek hartzeko duen konkurtsoa kudeatzen duen administratzaileari. Aste bat atzeratzeko aukera dagoela adierazi digute langileek. Antza, 7 edo 10 egunetan etorriko da inbertitzaile bere proposamena azaltzeko.

Iruñean egon ziren atzo eta Lourdes Goikoetxea lehendakariordearekin biltzeko aukera ere izan zuten. Goikoetxeak azaldu zien administratzailearekin dagoeneko bildu dela eta asmoa duela auziko epailearekin eta Inasako zuzendari Santiago Gonzalezekin biltzeko ere.



Bestalde, astelehenean Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen batzordeak aho batez onartu zuen adierazpena bat zeinek Nafarroako Gobernuari Inasan esku har dezala eslatzen dion. Beti ere, "ahalik eta lanpostu gehien mantentzeko eta hartzeko duen ahalik eta gehien kobratzeko".

AUKERA GUZTIETAKO

ELTXO-SAREAK

18 KOLORE





izara

GORTINAK ETA ETXERAKO OSAGARRIAK

948 46 73 04 · Pilotajoku zeharbidea, 8 · Altsasu · www.cortinasizara.com · info@cortinasizara.com

maskotak

gertutik >>

Maite Poveda Larraza

Zelai klinikako arduraduna

Albaitari lanetan 20 urteko ibilbidea eginda daukan Altsasuarrarekin hizketan izan gara.

Klinikan zer nolako animaliak artatzen dituzu?

Normalean animalia txikiak, etxe-koak, txakurrak, katuak, txoriak...

Animalia hauek etxeko zainkarako izaten dira?

Gutxi batzuk izaten dira zainkarako, badira ehizarako, ardiatarako baina gehienetan familiako beste kide baten moduan egoten dira etxeetan.

Beste mota bateko animaliarik izateko ohitura badaukagu?

Beno gutxi batzuk badira, uronak, sugeak, igelak, kameleoak eta sagutxo txiki horiek izaten dituztenak, baina ez pentsa asko dagoenik. Holako animalien zaleak oso zale izaten dira, baina proportzioan arruntagoak direnak aukeratzen dira.

Zainketa bereziak behar dituzte animalia hauek?

Bada batzuetan bai, zainketa karga izatera irits daiteke. Besteak beste, tenperatura berezia behar dute, hezetasuna gorde eta askotan horrek ere dirutza suposatzen du.

Maite, animaliak oparitu daitezkeela uste duzu?

Ez, oso arriskutsua izaten da eta gauza horiek arduraz hartu behar dira. Gure egunerokotasunean horrek zer suposatuko duen argi izan behar dugu bestela arazoak izan ditzakegu luzera.

Animalia bat gure etxeetan sartzenean zein pausu eman behar dira?

Lehenik eta behin gure bizimodurako animaliarik egokiena zein den erabaki behar da, arraza. Adibidez, guk mendira joateko ohitura badugu ezin dugu aukeratu hori jasango ez duen txakur bat edo alderantziz, gure bizitza oso sedentarioa bada ezingo dugu oso mugitua den txakur bat aukeratu. Arazo ez bilakatzeko oso garrantzitsua da aukeraketa ona egitea. Txakurrekin, adibidez, hartu eta osasun azterketen ondoren ongi desparasitatu behar dira bai ba-



Zerbitzuak

Aholkularitza
Medikuntza orokorra
Zirujia
Ekografia
Analisi klinikoak
Trikinia analisiak
Hospitalizazioa
Dokumentu guztiak
Garbitzeko makina
24 orduko salmentarako makina
Denda
Pentsuak
Tratamendu dietak
Antiparasitarioak
Azken momentua ailegatzenean denetaz arduratzen gara (eutanasia inzinerazioa bajak eta paper guztiak).

bidez, guk mendira joateko ohitura badugu ezin dugu aukeratu hori jasango ez duen txakur bat edo alderantziz, gure bizitza oso sedentarioa bada ezingo dugu oso mugitua den txakur bat aukeratu. Arazo ez bilakatzeko oso garrantzitsua da aukeraketa ona egitea. Txakurrekin, adibidez, hartu eta osasun azterketen ondoren ongi desparasitatu behar dira bai ba-



rrutik, nola kanpotik ere eta txer-toak ezarri. Txakurra edo beste animalia bat ongi aukeratzen baduzu, hortik aurrera dena oso erraza izanen da, dena ondo joango da. Edozein bizidunek behar duena behar du animaliak, jana, kalea, oinarriko beharrak asetu eta maitasun handia.

Animaliek zein gaixotasun izaten dituzte?

Bada ez daude salbu ohiko gaixotasunez, minbizia, tumoreak, istripuak, alergiak, denok sabela daukagu, gibela, giltzurruna... Bixia badirudi ere askotan errepikatzen dira gaixotasunak, txakurra diabetikoa izan eta jabeak adieraztea bera ere badela.

Adineko jendea eta haurrek etxean daudenean neurri bereziak hartu behar dira?

Nik aholkatzen dudana da ongi desparasitatzeko horiek direlako gehien transmititzen ahal direnak.

Ikerketek diote maskotak etxean daudenean alergia kopurua jaitsi egiten omen dela?

Bai, egia da, hainbat ikerketek hala adierazi dute, ematen du alergia

horietatik babesten gaituztela. Kontaktua txakurrekin txiki txikitatik izanda ematen du baietz, antibirus baten papera betetzen dutela.

Gero eta lagungarriagoak dira pertsonak ditugun hainbat gaizetarako?

Oso lagungarriak, nik oso gertutik alzeimerraren kasua bizi izan dut eta pertsonenganako harremana galtzen denean animaliekiko sentimendua ez da galtzen, ezta umeekikoa ere, haria mantendu egiten da animaliekiko eta haurrekiko. Autismoa duten umeak nola zabalitzen diren, depresioak jota dagoen jendea, bakarrik bizi dena... gai dira txakurrengatik kalera irteteko, animaliarengatik edozein zainketa egiteko.

Animaliek bizitza laburra izateak irakasten digu heriotzaren dueloa gainditzeko?

Ez inolaz ere ez, pertsonak ez gara batera trebeak hori gainditzeko. Ez dugu onartzen gauzak hasi eta bukatu egiten direla. Adibidez, umetan bai gertatzen dela, gaintitu gabeko dueloak animalien heriotzarekin gaintitzea edo animaliekin pertsona batekin baino negar gehiago egitea ere bai.

Zelai klinikak urte bat.

Bai, gezurra dirudi, baina bai. Denda hau handiagoa da eta horrela gure eskaintza zabalagoa da. Bi kontsulta ditut, beste albaitari bat baitago lanean nirekin eta ekografista denez ekografiak ere hemen egiten ditugu eta zirujia arazo txikiak ere hemen hartzen ditugu.

Duin: animalien erraustegia



Crematorio de animales Duin, S.L. 2002. urtean sortu zen, maskotei amaiera duina emateko, gure lagun fidel eta maitatuak baitira benetan.

Espainiako iparraldeko lehen Errausketa-labea/Beilatokia da konpainiako animalientzat.

Crematorio de Animales DUIN, S.L. hauxe da:

1. Kategoriako animaliak Bildu, Garraiatu eta Errausteko Kudeatzaile Baimendua.

· Animaliak errausteari ekin zion Espainiako Iparraldeko lehen enpresa da.

· Liderra da Nafarroan Animaliak Errausten.

Crematorio de Animales DUIN, S.L.:

· 10 urteko esperientzia.

· Errausketa zk. Ofiziala: S31.INC01059 eta Garraiolariarena: S.31.GRE.01.074.

· Behar diren baimen guztiak, Nafarroan, Aragoi, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gaztela eta Leonen bildu eta garraiatzeko.

· Instalazio modernoak dituen errausketa-planta, guztiz hornitua.

· Ordezkaritza bat Zaragozan, estaldura handiagoko emateko.

· Ibilgailu sorta zabala, bilketa egiteko eta errausketa-plantaraino garraiatzeko.

· Langile gaituak eta konprometitua ditugu, hildako Maskoten gorpuei tratua duina emateko.

Crematorio de Animales DUIN, S.L. enpresak animaliarendako tratamendurik onena bermatzen die bezeroei, prozesu bakoitzaren Organismo Ofizial batek abalatu baitago.

DUINek gure bezeroen beharrak asetzen ditu eta zerbitzu profesional espezializatua eskaintzen dugu, edozein izanda ere egoera bakoitzean gure zerbitzuak behar dituen pertsonaren edo enpresaren profila.

Horrek guztiak eraginda, Crematorio de Animales Duin, S.L. enpresa serioa, arduratsua, garbia eta begirunetsua da.

Baduzu gure instalazioak bisitatzeko aukera, aurrez hitzordua eskatuta.

ALBAITARITZA ZENTROA
centro veterinario **zelai** Maite Poveda Larraza
Zelai 150 Altsasu 948 963 011

Txanpua **Urberritu** **Parasitoak kendu** **Lehortu** **4€**

DUIN animalien erraustegia S.L.

GURE LAN MOLDEAK BEREIZTEN GAITU

24 ordu egunero
365 egun urtean

Utzubar Industrialdea,
8. partzela 1. nabea
31839 ARBIZU

948 460 034
info@duin.es • www.duin.es

Maskotak eta egunerokotasuna



Kontuan hartuta gure etxeetan animalia bat sartzea pausu garrantzitsua dela eta egunerokotasunean aldaketa handiak ekarriko dituela, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, beharrak ahalik eta egokien asetzeko. Jabeek aukera ezberdinak aztertu beharko dituzte eta ongi pentsatu bakoitzari dagokion animalia mota zein den. Haurrak eta familien bizimodua izaten ohi dira maskotak aukeratzeko gakorik ohikoenak.



Testua: Maria Goikoetxea (Urgain)

Animalia bat hartzea erabakitzen dugunean hauek dira eman beharreko lehen pausuak:

Albaitaritza zaintzak:

Lehenengo pausua beti albaitariarengana joatea da. Bere osasun egoera baloratu eta aurrerantzean egin beharrekoak buruz argibideak eman. Ezinbestekoak diren desparasitazio eta txertoak programatu, osasun txartela eguneratu eta ohitura onuragarriak hartzen lagundu.

Elikadura:

Aukeran pentsua da onena.

Kontuan izan beharko da animalien adina eta bakoitzaren datu zehatzak: gaixotasunak, gehiegizko pisua, tamaina...

Garbitasuna:

Txakurren kasuan, bainatzea beharrezkoa da, larruazalaren eta ilearen osasuna mantentzeko. Gorputz atalak (hortzak, belarriak) garbitzen ikasi behar da. Jakina den bezala arkakuso, kaparra eta beste bizkarrokoekin kontu handia izan behar dugu, gaixotasunak kutsatzen baitituzte. Horien kontrako tratamenduak jarraitu behar ditugu. Eta batez ere animalien "hizkuntza" interpretatzen ikasi behar da, gauza pila bat esaten baitizkigute ulertzeko gai bagara!



Dorraoko zakur eskolak 4 urte gure artean

Otsanda zakur-eskolak 2009ko uztailaren 1ean zabaldu zituen ateak. Lau urte pasa diren honetan hainbat proiektu berri martxan jartzeko aukera baliatu du, besteak beste: zakur-hotela (urte osoan zabalik), zakurren bitarteko terapia, zakurrrak hezteko estrategia berritzailea edo, udalekin lankidetzan, jabeen formazioari begirako ikastaroak, ohitura sanoak zein heziketaren beharra sozializatzeko.

Otsanda eskolako bazkide eta ikasle izateko hileko 40 euroko kuota ordaindu behar da. Horren truke bertako pista ezberdinetarako sarrera librea eskaintzen da, zakur-hoteleko prezio merkeagoa, bestelako zerbitzuetan hainbat beharpen, eta beste. Deigarria da kuota horren bitartez, gainera, astean zehar 13 jarduera ezberdin eskaintzen direla egun ezberdinetan prestatutako saioen bitartez. Era horretan, trebakuntza era osagarrian antolatzen da, norberaren beharren araberrako estrategiak sortuz eta zakurraren garapen orekatua ziurtatuz. Honako hauek dira astero-astero urtean zehar ikasleen formazioarako eskaintzen diren jarduerak: Klicker eta Trebeziak, Oinarrizko obedi-



tzia, Obedientzia aurreratua, Agility, Jumping, Sozializazioa, Hiri adaptazioa, Pertsonen bila-

keta (erreskatea), Disc-dog, Flyball, Heziketa foroa, Jolasak eta Sinkronizazioa. Ikasleak nahi



adina saioetan har dezake parte. Otsanda zakur eskola Dorraon aurkituko duzu, informazio

gehiago nahi izatera Estherrek, Josemik edota Mikelek egingo dizute harrera.

urgain
albaitaritza zentroa - centro veterinario

948 567 032
Araña 2 · Etxarri Aranatz

Ergoienako zakur eskola,
hezi eta bizi

Otsanda Zakur - eskola

672 403 850 · otsanda@otsanda.com

Klicker eta trebeziak - Oinarrizko obediencia - Obedientzia aurreratua - Agility - Jumping - Sozializazioa - Hiri adaptazioa - Pertsonen bilaketa (erreskatea) - Disc-dog - Flyball - Heziketa foroa - Jolasak eta Sinkronizazioa

>> Altsasu



Eraso bakoitzaren biharamunean, 19:00etan, kontzentratzen dira.

Sexu erasoek kaleko salaketa

Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak deituta, Bilbon gizon batek eraildako bi emakumeak izan zituzten gogoan here-negun. Feministek salatu zuten, "indarkeria sexista emakume izateagatik jasaten dugun indarkeria da; emakumeon bizitzak ez du berdin balio bizi garen sistema sexista, klasista eta arrazista honetan". Ziurtatu zuten, emakume izate hutsaz gain "jatorriak, azalaren koloreak eta gizarte mailak indarkeria jasateko aukera are

gehiago larriagotzen du". Eta gogorarazi zuten Bilbon eraildako emakume etorkinak, beltzak eta sexu langileak zirela.

Sexu indarkeriak milaka aurpegi dituela nabarmendu zuten. "Bizi garen sistema kapitalista patriarkalaren funtzionamendua ezinbesteko tresna da, botere harremanak bizirauteko". Feministek adierazi zuten, sexu indarkeriak "lehen mailako arazo politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala izaten jarraitzen du".

MOTZEAN

Abuztuko Udaneuskaraz-en plazak daude

Hilaren 10etik 21era izena eman daiteke 012 telefonora hots eginez

Altsasuko Udalak jakinarazi du Udaneuskaraz programaren agorriko eskaintzan plaza libreak daudela. Horregatik, izena emateko epe berria zabaldu du. Hilaren 21ean argitaratuko du udalak behin behineko zerrenda eta garilaren 5ean behin betikoa.

Altsasuko festak prestatzeko bilera

Altsasuko Udalak festak antolatzeko bilera deitu du astelehenerako, 19:00etan, Gure Etxean. 2012ko festebaluzioa eginen da, indarguneak, ahuleziak eta hobetzeko dauden lan ildoak zehaztuz, eta ondoren 2013ko festei ekinen zaie. Festetarako aurreikusitako jarduerak azalduko dira, lan egutegia finkatuko da eta festa batzordearen helburuak eta funtzionamendua zehaztuko dira, iradokizunak aztertuz.

MOTZEAN



Altsasuko Udaleko sozialisten aulki bat betetzeko bidean

PSNren zerrendan bosgarren hautagaia zen Braulio Salvador Calvo izan da Javier Donlo dimititu berriaren ordezkari zinegotzia Altsasuko Udalean. Dagoeneko udalak bere egiaztagiria eskatu du. Ondoren, Maria Jose Notariok utzitako hutsunea bete beharko luke PSNk. Izan ere, gauegun udalean PSNko zinegotzien aulkiak hutsik daude. Altsasuko Talde Sozialistako idazkari Juan Miguel Perez Hurtadok esan digunez, "lehen tasuna bi karguak betetzea da". Horregatik, aurreko astean PSNko antolakuntza idazkari Santos Cerdanekin bildu ziren. Legeak diotenari jarraituz, zerrendako hautagaiek arduratu hartu edo ez erabaki beharko dute. Hala, hirugarren zehazketa uko egin zion. Laugarrenaren ziurtagiria eskatu zuen udalak, baina ez zuen kargurik hartu, ezta aukera baztertu ere. Perezek gogoratu du gorabeherak izan ondoren Altsasuko hauteskunde zerrenda Iruñean osatu zutela independenteekin. Haien hasierako harremanaren ondoren gehiago ez dutela izan azaldu digu Perezek. Zinegotzi kargu hartzen dutenak, independenteak izanda ere, Altsasuko sozialisten buruak ziurtatu digunez, "sartzen diren taldeak eta PSNk hartutako erabakiak bere egin beharko dituzte".

Sortu: etorkizuneko Altsasu eraikitzeko tresna

Hala irudikatu dute ezker abertzaleko kideek alderdi berriaren egiteko Altsasun. Altsasu berri hori eraikitzeko Sortu borroka ideologikoa, masa borroka, borroka instituzionala eta komunikazioa erabiliko ditu. Horrekin batera, bere plangintza lehen tasunezko hiru ildo markatu ditu Sortu Altsasuk: enplegua, etxebizitza eta elikadura burujabetza. Neguko eztabaidaren ondoren, maiatza akaberan aurkeztu zen alder-

dia Altsasun. Sortuko kideak udan eragile eta norbanakoekin bilduko dira haien ekarpenak, kezkak eta ikuspuntuak jasotzeko eta horrela haien plangintza osatzeko, zehazteko edota aldatzeko.

PP ETaren biktimen alde

Larunbatean PPN Altsasuk antolatutako ekitaldian "ETAK biktimak babestu eta eraildako memoria eta duintasuna defendatzen duten kolektibo guztiak" omendu zituzten. Popular nafarren presidente Enrique Martinek adierazi zuenez, "biktimen, demokraziaren eta justiziaren alde da" haiena. Consuelo Ordoñezek, Coviteko presidente eta Gregorio Ordoñez zena-aren arreba, azaldu zuenez, "Zuzenbide Estatutik justizia finkatuko duten benetako mekanismoak ezartzeko borrokatzen gara egunero. Justiziarik gabe ez dago memoriarik, ez dago duintasunik eta justiziarik gabe ETAK irabazten du". Iortia kultur gunean 50 bat pertsona bildu ziren. Popular nafarren zuzendaritzako kideak eta hainbat hautetsi izan ziren Altsasun. Ekitaldian izan ziren Altsasuko UPNko zinegotzi Francisco Javier Cerdan Calvo eta zinegotzi izandako Maria Antonia Roman eta Mariano Garcia Carrancho. Frontoian *Faxistak kanpora, ez zaituztegu nahi* zioen pankarta zintzilik zegoen.

BALORAZIOA

Francisc Paris Altsasuko zinegotziak azaldu zigunez, "politika nahiko egokiak" garatzen ari dela PP ibarrean. "Logikoki gure mugak ditugu, sortu den alderdia da. Ni Iruñean bizi naiz eta hori handicap handi bat da". Hurrengo hauteskundeetan altsasuarrak aurkeztea espero duela adierazi zuen. "Sakanak ideiak oso argi dituen eskuin bat gehiago behar du. Argi dago UPNk uneren batean Sakanako eskuinaren eskatzen zioena ez du ematen jakin". Hurrengo urratsa Sakanako toki-batzorde sendoa osatzea izan dela aurreratu zuen. Altsasuko Udalez adierazi zuen Bildu bere politikak "ordaintzen" ari dela, "sekula gobernatu ez duen jendea da". Etagaineratu zuen, "udalbatza demokratikoa dago eta dena herriko jendearekin egindako bileretan oinarritzen da. Jakina, entzun behar zaie. Baina plenoan ordezkariak daude eta udalbatzari ez zaio kasurik egiten".

SAKANA

Lehen Lacturale esnea, orain Lactuyogurra

Postres Ultzama eta Xalok enprekin elkarlanean sortu dira yogurt berriak

Osasunako jokalariek presentez deldela, astelehenean bere produktu berria aurkeztu zuen Lacturalek: Lactuyogurrak, Nafarroako Ekoizpen Integratuan zertifikatuak. Esnea eta hartzigarriak besterik ez dira osagaiak. Koloratzailerik ez dutenez, yogurrak txuriak dira.

Lacturaleko presidente Juan Manuel Garrok azaldu zuenez, "lehengai onak, ekoizpen eta ontziratze prozesuak kalitate altuko produktua lortzeko aukera eman digu, ezaugarri organoleptiko nabarmenekin. Ondorioz, yogur krematsu, arin eta zapore atseginekua". Lauko paketetan salgai daude. Lacturalek ekoizten dituen 10.000 milioi litro esnetik %5 bideratuko dute Lactuyogurrak egiteko. Esnearekin gertatu den moduan (%22ko merkatu kuota), Nafarroan erreferentzia zko yogurrak bihurtzea nahi dute.

Garrok aukera baliatuz Lacturaleko



Naturala, marrubia, limoia, platanoa eta banilla zaporeko Lactuyogurrak daude.

turaleren enpresa filosofia laburtzeko: "egitasmoa kontsumitzaileari errespetuan oinarrituta dago, kalitate irisgarria eskainiz; ingurumena errespetatuz, ekoizpen prozesu jasangarria erabiliz eta, azkenik, gizartearekin errespetuan, gauden tokian aberastasuna sortzea izan baita gure konpromisoa".

Elkarlanean

Lactuyogurra hiru enpresen ahaleginaren fruitu da. Esnearen ekoizpena Lacturalek egiten du.

Hura yogurt bihurtu eta ontziratuz, berriz, Postres Ultzamak egiten du. Gabriel Zigandaren enpresak esnekien arloan duen esperientzia jarri du.

Yogurra egiteko prozesua Etxarri Aranazko Xalok-eko Ana Carmen Huarte dietista-nutrizionistak gainbegiratu du, katak eginez. Duela 4 urte Lacturalarekin elkarlanean hasi zen Huarte, "nutrizio arloan laguntza eman, hitzaldiak emanez, haien prestakuntza" aritu izan da ere. +www.guaixe.net

Makillaje tailerra ekainak 10-15

Anima zaitez!

Reden
Lurrindenda
eta kosmetika

948 562 452
ALTSASU

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

BUJANDA
okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€


948 467 876 • Altsasu



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Jose Marcos Gasanz Villuendas "Pepe"
Ekainak 5, II. urteurrena

Ez zaitugu ahaztuko.

Bere aldeko meza ekainaren 9an ospatuko da, goizeko 11:30ean Urdiaingo elizan.

Zure emaztea eta alabak



Hainbat aukera
Galdetu
948 564 275

Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

JAIOTZAK

- **Haritza Mauleon Goena**, maiatzaren 28an Etxarri Aranatzan.
- **Unai Gomez Mundiñano**, maiatzaren 31n Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- **Joaquin Iriarte Bidondo**, ekainaren 1ean Lakuntzan.
- **Isabel Beraza Ocaña**, ekainaren 3an Uharte Arakilen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ/3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA
Gitarra klaseak, udako zikloa gitarra akustikoa. Datak: ekainaren 25etik abuztuaren 15era. Kontakua 653-17 54 68 telefonoan edo huesoy-peyejo@gmail.com

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe adosatu bat salgai edo alokairuan
Uharte Arakilen. Alokairua 500 €, salgai 150.000 €. Interesatuak hots egin 629- 83 50 42 telefonora.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Aitziber elkarteko taberna. Urdiaingo San Pedro eta Andramuztuko festetako Aitziber elkarteko taberna alokairuan. Interesatuendako bilera ekainaren 7an arratsaldeko 19:30ean.

Oparitakoak

Katakumeak oparitzen dira. Interesatuak hots egin 669- 35 42 30 telefonora.

Galdutakoak

Nokia mugikor arrunta. Galdu nuen Etxarriko Iratxo tabernan. Opatu duenak, mesedez, utz dezala Guaixeiko Altsasuko bulegoan. Esker mila.

Ikastaroak

AESEK ikastaro hauek antolatu ditu. "Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu, ekainaren 7tik ekainaren 21era.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>

Lehiaketa

"Pedro de Atarrabia" XXIV literatur sariketa

ta. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

Oharrak

UEMA eguneko bazkaria. Aramaion izanen da ekainaren 8an. Izena emateko 946- 27 91 95 telefonora hots egin. Langileek 18 €, langabeek 14 € eta 14 urte bitarteko umek 10 €.

Odol emaleak. Ekainaren 10ean Irurtzunen, arratsaldean.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola libre. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Urdiaingo eskolan negutegi. bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

XVI. Igartza literatura, sorkuntza beka idazle berrientzat. Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak beka hau sortu dute idazle berrientzat. 6.000 euroko diru-laguntza izango du. Epea: 2013ko ekainaren 30a. Nora bidali: kultura@beasain.net. Argibideak: Beasaingo

Udaleko kultura eta Euskara saila – Loinazko San Martin plaza – 20200 Beasain. Telef: 943- 02 80 63, faxa: 943- 02 80 71 eta kultura@beasain.net

Solasaldiak nederlanderaz. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoarritza.com

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZ0ZidlV6RUVTdHJfMklvR1c4TGc6MQ>

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatorka. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikuxar-mus-txapelketa-azkarrak. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi

duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure Belexeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokola-

tea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritzaz itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritzaz zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigratioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon



948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

sorgiñak
taberna



LAKUNTZA
948 576 357

Mendi txirrindularitza

Altsasu BTTlarien bilgune

Altsasuko BTT Zeharkaldiaren 18. edizioa izanen da igandean. 43 km-ko ibilaldi ederra prestatu dute, eta lehenengoz Sagarminarri gainera joko dute

Burunda Txirrindularitza Taldeko Mendi Txirrindularitza Sailak dena prest dauka igandeko 18. Altsasu BTT edo Mendi Txirrindularitza Zeharkaldirako. Antolakuntza 1.000 txirrindulari hartzeko prest dago. Iaz 878 aritu ziren. Aurrez 400 pertsonak bete dute inskripzioa www.clubciclistaburunda.com web orrian, baina eguraldiaren arabera egunean gehiago edo gutxiago izanen dira.

Altsasukoa proba ez-lehiakorra da. Euskal Herriko egutegian finkatuta dagoen proba da, Nafarroako probetan zaharrena. Helburua gure eskualdea erakustea da, gure paisaiekin gozatzea eta bizikletarekin disfrutatzea.

43 km eta 1000 m-ko desnibela

Txirrindulariak goizeko 9:00etan aterako dira Altsasuko plazatik. 43 km dituzte aurrez aurre. Hasieran Sorozarretara joko dute. Segidan Urdalurko urtegitik pasako dira, handik gora Ziordia eta Olazitiko



Txirrindulariak gustura ibiliko dira prestatutako zirkuituan. ANA VILCHES

mugarajoateko, Sagarminarri gainera. Lehenengoz paraje haietan barna ariko da Altsasuko BTT proba. "Probaren 11 km inguru berriak dira, Ziordia eta Olazitiko paraje etan" adierazi digu Claverrek. Zapardin, hornidura gune nagusian, atsedena hartu eta bertatik Orobeko harrobietara joko dute, gero Sorozarretara, Torretxikira eta Uberragara heltzeko. Edari horniduraren ondotik Dantzalekura helduko dira, eta Basoixin buelta bat eman ondoren Altsasuko plazara helduko dira.

Lana, giro onean

Izena ematen duten lehen 700 txirrindulariek kirol kamiseta teknikoak, Laket txistorra, Katealdepatea, Lacturale esne kaxa eta Kaiku produktua jasoko dute. Horretaz gain, bizikletarekin zerikusia duten sariak zozketatuko dituzte.

Antolatzaileek Altsasu BTT zeharkaldian parte-hartzera animatu dituzte sakandarrak, "ibilbidea ederra delako, pribilegiatua". Dena ongi ateratzeko 100 lagun inguruk egingo dute lan "oso giro onean. Herriari onura

I. Aralar-Beriain BTT martxarako izena ematea zabalik

Ekainaren 16tik aurrera BTT proba berria izanen dugu Sakanan, Uharte Arakilen antolatu duten I. Arakil-Beriain BTT martxa (40 km). Sortu berria den Aralar-Beriain BTT taldeak antolatu du proba ez-lehiakorra, eta izenak dioten bezala, Uharte Arakildik aterata, lehenik eta behin Aralarre joko du probak, bertatik buelta bat emanez atzera ere jaitsi eta Beriain igotzeko. Izena ematea eta informazio guztia www.aralar-beriaibtt.com web gunean.

Igandean bertan eman daiteke izena

Oraindik ere izena eman daiteke, igandean, probaren egunean, 7:45etik 9:00etara, Altsasuko Gure Etxean (Federatuek 21 euro eta federatu gabekoe 25

ekartzen dion aktibitate bat prestatzea beti da ederra" nabarmendu du Claverrek, Altsasuko Udalen prestutasuna eskertuz.

Irristaketa

**Sakandarrak Espainiako Irristaketa Txapelketan**

Asteburuan Espainiako Abiadura Irristaketa Txapelketa jokatu da Argandan. 243 irristalari bildu ziren, tartean Sakana Irristaketa Klubeko 4 irristalari: Ines Moreno jubenila, Unai Villalobos eta Ander Chamorro haurrak eta Anne La Puente kimua. Juli Acebes entrenatzaileak adierazi digunez, lan bikaina egin zuten guztiek.

Atletismoa

Moreno bigarrena Loiu-Bilbon

Javi Moreno altsasuarra bigarrena sailkatu zen Loiu-Bilbo 8 km-ko lasterketan, irabazlearekin esprint gogorra izan eta gero. Altsasuarra hileropodiumera igotzea lortzen du.

Botxa

**Tximeleta eta Lirainak berdinduta Iratxo Botxa Txapelketan**

Sailkapena

1.	Tximeleta	6 puntu
2.	Lirainak	6 puntu
3.	AHTrik EZ	4 puntu
4.	Tirillas	2 puntu
5.	Migel-Felix-Xabier	2 puntu
6.	Desesperados	0 puntu

Iratxo Botxa Txapelketak aurrera darrai. 6 talde ari dira lehiatzen, eta partida biziak ari dira jokatzeko Iratxo botxategian. Asteburuan azken jardunaldia jokatu da.

Asteburuko jardunaldia, azkena

>> Ekainak 7, ostirala
20:00etan: Felix-Migel-Asensio / AHTrik EZ
21:15ean: Desesperados / Tximeleta
>> Ekainak 8, larunbata
19:00etan: Tirillas / Lirainak
20:00etan: AHTrik EZ / Tximeleta

Futbola

Etxarri Kopako finalera

Bidezarra izango du aurkari larunbatean, 17:00etan, Lekunberrin

Sakanak badu ordezkaria kadeten mailako Nafarroako Kopako finaleran: Etxarri Aranatz. Finalerdietan Altsasuren kontra lehia oso estuan bana berdindu eta penaltietan 6-5 irabazita iritsi da finalera Etxarri Aranatz. Finala Bidezarraren kontra jokatu du larunbatean, 17:00etan, Lekunberrin. Ea etxarriarrek kopa ekartzen duten.

Puntako haurren mailako futbol torneo bihar Etxarri

Etxarri futbol taldekoak guztiz lanpetuta ibiliko dira larunbatean,

aipatutako kadeteen finalaz gain, haurren mailako puntako futbol torneo antolatu baitute. Futbol talde nagusien filialak ariko dira bertan. Etxarri Aranatzko San Donato futbol zelaia hartuko du torneo, goizeko 10:00etatik aurrera jokatu dena. 6 talde ariko dira, 2 multzotan banatuta. A multzoan Osasuna, Etxarri Aranatz eta Real Union, eta B multzoan Erreala, Izarra eta Beasain. Hasieran ligaxkako partidak jokatu dira eta arratsaldean aurre finalak eta finalak.

Etxarriko Iñaki Elvirak adierazi digunez, egun osoan barna taberna zabalik egongo da eta ogitarte-



Derbya oso estua izan zen.

koak jateko aukera izangoda. "Egun osoan Osasunako eta Errealeko kamixetak, Aitor Zubieta pilotariak sinatutako pilota eta beste hainbat gauza zozketatuko ditugu".

Altsasuk Udaberriko Kopari agur

Altsasu futbol taldea Udaberriko Kopatik kanpo geratu da final zortzirenetan, Valtierano B-ren kontra 2-0 galdu eta gero. Despeditu da, bada, denboraldia, Altsasurendako.

Dominguezek Lagun Artean jarraituko du: Lakuntzako Lagun Artean futbol taldean oso kontentu daude Josu Dominguez entrenatzaileak egindako lanarekin. 3. mailari eustea lortu du Lagun Arteak (45 punturekin, 34 gol sartu ditu eta 48 gol jaso) eta zuzendaritzak Dominguezi beste denboraldi baterako berri dio kontratua.

Ekainak 18a baino lehen bidali

Udaberriko argazki lehiaketa

>> Saria: **SAVÁN** informatikak eskainitako **liburu digitala**

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira. Argazkilari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak berretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralar: 10. edizioa, borobila

IGANDEAN JOKATUKO DA LASTERKETA, 9:30EAN (28,5 KM). NAFARROAKO ETA EUSKADIKO KOPETARAKO BALIAGARRIA DA

Handitzen ari zaigu Lakuntzako Zabalarte Mendi Klubak hainbat entitatekin laguntzarekin antolatuta, igandean, hilak 9, jokatu den Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Antzinako apustueta oinarrituta sortuzen Guardetxeko igora lasterketaren tokia hartu zuen probak, ibilbidea luzatuz. Probaren 10 urteak ospatzeko, aurten mendi proba Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria izateaz gain, aurten Euskadiko Kopetarako puntuagarria izango da, eta garaileek errekorra gaintuz gero, 300 euro gehiago eskuratuko dituzte. Atzo despeditu zen izena ematea eta erredakzioa ixteko garaian ia 250 korrikalari zeuden izena emanda. Iaz Hassan Ait Chaouk eta Aitziber Ibarbia izan ziren txapeldunak. Aurten puntako korrikalariak espero dira, eta ikusi beharko dugu zer egiteko prest dauden puntan dauden Aralar Mendiko uhartearrak.

Aralarko paraje ederretatik barna

Lakuntzako Aralar mendizerraren bihotzean egiten den lasterketa da (28,5 km, 2.308 m desnibela). Korrikalariak 9:30ean abiatuko dira Lakuntzako plazatik. Atazar-



Aralarko paraje zoragarrietan barna ariko dira mendi korrikalariak.

ko igoeratik Guardetxera igoko dira (1.035 m), antzinakogaltzadatik pasaz. Guardetxetik Albi eta Mugardin barneratuko dira, Belokiko lepora joz (1.205 m) eta handik zuzen Unako putzura ailegatu. Gero Hirumugarrietako tontorrera (1.431 m, Aralarko tontorrikaltuena) iritsi arte. Ondoren Lakuntzarako bidea hartuko dute Errenaga (1.298 m), Pagomari (1.140 m) eta Sandindegitik barna jaitsiz.

Bukaeran, ohikoa denez, masajeak hartzeko aukera eskainiko du

Surya masaje eskolak. Eta, jakina, auzate ederra izango da korrikalari guztiendako. Guztia behar bezala antolatzeko, 80 pertsona baino gehiago ariko dira antolantza lanetan.

Errekorra gaintuz gero 300 euro gehiago

Sari banaketa 13:15ean hasiko da. Parte-hartzaile guztiek kamiseta tekniko bat eta produktu lote bana jasoko dute. Irabazleek, gizon eta emakumeak, 350 euro, txapela eta trofeoa jasoko dituzte, eta erreko-

www.lakuntza-aralar.com

Lasterketari buruzko informazio guztia.

Erakusketa

Probaren 10. urteurrena ospatzeko Lakuntza-Aralar lasterketari buruzko erakusketa antolatu du Zabalartek, udaletxeko ganboikoan. Larunbatean 19:30ean mustuko da eta igandean ere zabalik egongo da. Mustutze ekitaldia Jose Antonio Salgado omentzeko baliatuko dute Zabalartekoe, altsasuarrrak antolaketan laguntzeaz gain, Guardetxe eta Lakuntza-Aralarren beti parte hartu baitu. Horrela, 10 urte hauek eta Guardetxeigoerako aurreko urteak biltzen dituen dossierra edo liburuxka jasoko du Salgado.

dituzte.

Kadete eta jubenilendako 16 km-ko proba

Bigarrenez, Zabalarte Klubak 17 km-ko ibilbidea antolatu du kadete (15-17 urte) eta junior (18-20 urte) mailendako. Helduekin batera aterako dira kadeteak, 9:30ean, eta Guardetxeraino ibilbide berbera egingen dute. Ondoren, Igartzako pista hartuko dute eta Kolo-sabarrenaraino joango dira, handik helduen jaitsiera egiteko.



Angel Arrieta garaile 68 km-ko Euskal Herriko Mendi Erronkan

IÑAKI MARTIARENA TALDEKIDEA 3.A IZAN ZEN ETA UHARTEKO ARALAR MENDI PROBAKO TALDERIK ONENA

Euskal Herriko Mendi Erronka (65 km, Leitza)

Gizonezkoak

1. Angel Arrieta (Uhartea) 6:45:51
3. Iñaki Martiarena (Uhartea) 7:13:42
7. Jose J. Maiza (Etxarri A.) 7:27:49
42. Aritz Munariz (Etxarri A.) 8:27:01
150. Alatz Agirre (Arbizu) 9:46:03
174. Patxi Rubio (Uhartea) 10:02:35
183. Aitor Hernaiz (Lakuntza) 10:13:09
193. Jose Julian Lopez (Altsasu) 10:23:41
238. Sergio Goñi (Olazti) 11:10:21
319. Fco. Javier Rodriguez (Alts.) 12:47:23
338. Javier Ignacio Gonzalez (Alts.) 13:11:44

Emakumezkoak

1. Leire Agirrezabala 8:24:08
5. Arantzazu Larrañaga (Uhartea) 10:02:35

Taldeak

1. Uhartea Arakilgo Aralar Mendi 34:04:43

kalaria 28.a sailkatu baitzen. Eta bere taldekide Iñaki Martiarena bigarrena izan zen Ezkaba Traillean. Handik astebetera bi uhartearrek poztasuna ekarri dute Sakanara. Larunbatean Leitza estreinatu eta jokatu den Euskal Herriko Mendi Erronkan -65 km-ko mendi lasterketa potoloa, tartean Aralarko San Migeletik pasatzen zena-, 500 korrikalarik parte hartu zuten eta Angel Arrieta izan zen garailea (6:45:51), sekulako erakustaldia emanez, Gaizka Barañanori 7:04 eta Iñaki Martiarenari 7:13 atera baitzien. Emakumezkoetan Leire Agirrezabala izan zen txapelduna (8:24:08) eta Aralar Mendiko Arantzazu Larrañaga 5.a sailkatu zen (10:02:35).

Aralar Mendiko korrikalariak puntan daudela ezin da ukatu, eta



Martiarena, Larrañaga eta Arrieta saria jasotzen, Leitza. IZASKUN B.

horren isla Uhartea Arakilgo taldea izan da probako talderik onena. Aipatu proban Euskal Herri mailako sailkapena eta sari ematea eta kilometro bertikalen sailkapena egin zen ere, eta gizonetakoetan Angel Arrietak irabazi zuen sailkapen hori. Emakumezkoetan Arantzazu Larrañaga 3.a sailkatu zen eta 3. euskalduna izan zen. Zorionak guztie!

Zegama-Aizkorriko mendi maratoin ongi ibili zen Angel Arrieta uhartearra, Aralar Mendiko korri-

Aizkora

Beste txapel bat Nazabalendako

Banakako Urrezko Aizkora

1. Floren Nazabal	25:41
2. Aitzol Atutxa	28:46
3. Joseba Otaegi	29:41
4. Jon Rekondo	30:26

Floren Nazabalek demonstratu du oraindik ere jaun eta jabea dela aizkora munduan, gainontzeko aizkolariak baina koxka bat gorago dagoela. Pronostiko guztiak betetz Etxarriko txapeldunak Banakako Urrezko Aizkora irabazi zuen igandean Azpeitian, bigarrenari, Aitzol Atutxa bizkaitarrari, 3 minutu pasako alde aterata, espero baino alde handiagoa.

500 aizkora zale inguru bildu ziren Azpeitiko Izarraitz kiroldegian finalaz gozatzeraz. Finalera sailkatu ziren lau aizkolariek - Floren Nazabal etxarriarra, Jon

Rekondo, Aitzol Atutxa eta Joseba Otaegi - 6 lan egin behar zituzten, guztira 12 enbor erdibituz.

3. lanetik aurrera nagusi

Lehen lana, 45 ontzakoa ahalik eta kolperik gutxienean ebakitzekoa, Atutxak irabazi zuen, eta bigarrena, 45 ontzakoa erlojuz kontra ebakitzekoa, Rekondok. Hortik aurrera etxarriarra izan zen jaun eta jabe gainontzeko 4 lanetan. Hortaz, merezitako txapela jantzi zuen Etxarriko txapeldunak.

Palmares izugarria

Etxarriarrak sekulako palmaresa du. Igandekoarekin 8 Urrezko Aizkora irabazi ditu, egungo Euskal Herriko Maila Nagusiko txapelduna da (6 txapela ditu) eta Nafarro-



Txapel bilduma gehitu du Nazabalek.

ako Maila Nagusiko egungo txapelduna (Nafarroako 7 txapel ditu) beste hamaika sarirekin batera.

Automobilismoa-Rallysprintak

Sakandarrak ongi Goierrin

Larunbatean, Lazkaoko ikastolaren 50. urteurreneko programazioaren barruan, Goierri-San Benito I. Rallysprinta jokatu zen, Euskal Herriko Txapelketarako puntugarria eta sekulako motor festa.

Pilota eta kopilota sakandarraren emaitzak

Sakandarrak bikain aritu ziren. Sailkapen orokorrean Iker Gaysoso eta Diego Fernandez nagusitu ziren (Lancer EVO IX, 29:05.200). Juanjo Sanz pilotu leitzarra eta Javier Goikoetxea 7.ak sailkatu ziren (Clio Sport, 31:15.100). Eta Arkaitz Irigoien eta Oier Larrañaga -R11 Turbo, 4. maila- 21.ak (34:08.800). Formula Librean aritu zirenen artean Iban Lopez de Goikoetxea eta Lander Mella bizkaitarra izan ziren garaileak (R5 GT



Turbo, 32:27.200) eta Joseba Aldaz eta Iker Azkargorta bigarrenak (Peugeot 205, 33:06.000).

Txirindularitza

Nafarroako Itzulia Rural Kutxarendako

TONI MOLINAK IRABAZI DU NAFARROAKO ITZULIA.

Eliteen eta 23 urtez azpiko afizionatuen 52. Nafarroako Itzulia zapore sakandarra izan du, Rural Kutxa talde sakandarreko Toni Molina izan baita garailea. Krisiaren eraginez aurten soilik bi etapa izan zituen Nafarroako Itzulia, eta 14 talde lehiatu ziren.

Talde sakandarrari ongi atera zitzaion estrategia. Larunbateko lehendabiziko etapari Rural Kutxako Toni Molina izan zen garailea, 7 txirindulariz osatutako talde txoari 34 segundo aterata. Eta igandeko etapari Lizarteko Higinio Hernandez izan zen azkarrena Molinarekin Iruñean izandako sprint estuan. Baina bezperako abantailari esker 22 urteko Toni Molinak irabazi du Nafarroako Itzulia. Higinio Fernandez 2.a izan da, 34 segundora, eta Rural Kutxako Migel Angel Benito 3.a, 5:46ra. Alacantekoa pozik zortzen zegoen. "Taldekide guztiei eskertu nahidietarrakastahau. Onekin salto egiteko talde hoberean nago". Rural Kutxak 13 garai-

pen daramatza.

Dauphiné eta Suitza

Egoi Martinez eta Imanol Erbiti Dauphinén daude eta Gorka Ver-

Asteburuko probak

Eskolen kategoriakoek igandean proba dute Artikan, 10:00etan etakadeteak Villatuertan arikodira, 11:30ean (52,8 km). Egun berean afizionatuek Euskadiko Txapelketan dute Ataunen, 49. San Martin proban, 9:30ean (136,2 km).

dugo eta Jorge Azanza bihar hasikoden Suitzako Itzulian ariko dira.

Eneko Aramendia bigarrena Iturmendi Sarian



Larunbatean kadeteen mailako I. Iturmendi Saria jokatu zen, 52 km-ko lasterketa. Ciclos Lizarra-Irisarri taldeko Diego Lopezek irabazi zuen lasterketa, Burunda Txirindularitzako Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendiarekin esprint lehiatu izan eta gero. Talde bereko Josu Gabirondo iturmendiarra 9.a izan zen, 41 segundora. Aralar Klubeko Irabia Intersport taldeko Izai Mauleon eta Xabier Maiza 23.a eta 24.a izan ziren, denbora berean. Quesos Albenizeko Aritz Irigoien eta Asier Juanez 34.a eta 35.a izan ziren, 49 segundora, talde bereko Eneko Vilar 38.a, 1:21era, eta Irabiako Unai Zubiria 41.a, 1:42ra, eta Quesos Albenizeko Alex Unzilla 47.a, 3:13ra.

Pilota

Ezkurdia Jaunarenaren kontra Nafarroako lau t'erdian

Sanferminetan jokatzen da Nafarroako lau t'erdiko Torneoko finala eta dagoeneko enpresek txapelketa prest dute. Aspek 5 pilotari nafar aurkeztuko ditu -Ezkurdia, Jaunarena, Retegi Bi, Barriola eta Irujo- eta Asegarek lau nafar -Arretxe II., Idoate, Olaixola II. eta egungo txapelduna, Bengoetxea VI.-. Enpresa bakoitzak bere alde tik jokatuko du txapelketa, eta finalera enpresa bakoitzeko pilotari onena helduko da.

Aspek igandean jokatuko du lehendabiziko kanporaketa, Eibar-ko Astelenan (ETB1, 17:00etan). Joseba Ezkurdiak Jon Jaunarena leitzarra izango du aurkari. Iku si beharko da kaiolan nola moldatzen diren bi aurrelariak, baina lehia estua espero da. Espero deza gun Ezkurdiak aurrera egitea.

Nafarroako Opena Alberto Ongayrendako

Alberto Ongay satrustegiarrak eta Jose Luis Tabarrek jokatu zuten Buruz Buruko Nafarroako Opena. Txapela Sakanara etorri zen, Ongayk 22-12 irabazi eta gero.



Olaztiko San Migel txapelketako partidak

- Gaur, ostiralean, 21:00etan
3. maila: Iñigo-Borja / Iñaki-Migel
2. maila: Beñat-Aritz / Mendi-luze-Bikario
- Afizionatuak: Loban-Tabar / Kortabarria-Gomez
- Bihar, larunbatean, 18:30ean
3. maila: Flores-Montesinos / Victor-Zornoza
2. maila: Ezkurdia-Arruti / Senar-Gebara
1. maila: Murgiondo-Agirre / Mazkiaran-Alustiza

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

PLAZA BETE DOINU: Musika plazan zikloak aurrera jarraitzen du Etxarri Aranatzan. Igandean Kubako musika eskaintzera etorriko da Las dos D musika taldea. Kiosko gaineko emanaldia 19:00etan hasiko da.

kultura >>

Baikortasuna eta errealitatea eszenatokian

Gaur, ostirala, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean

Cerdo Agri dulce antzezlan eskainiko du gaurkoan Iluna producciones taldeak. Komedia da taularatuko dutena, eta izenburuak iradokitzen duen moduan batzuetan gozoa besteetan garratza izanen da. Hala ere, pertsonaiek eta guk bizi dugun egoera korapilatsuari baikortasunez begiratzen diote.

Bost langileren berri ematen digu antzezlanak. Madril inguruko industrialdea bihurtu da eszenatokia: txinatarren jabetza duen izoz-



tutako jakien enpresa bat. Han kontraturik gabe lan egiten dute, bihar enpresazabalik opatuko duten jakin gabe. Nagusiak zein diren jakin gabe eta haiekin ezin komunikatu. Gauzak horrela, langileak konponbideak eta etorkizun hobe baterako bidea bilatzen saiatzen dira.

Petriati eta Razkin sarituak

Aurreko asteazkenean Erronkariko Julian Gaiarre eskolan egin zuen Euskara Kultur Elkar-goak (EKE) bere VII. mikro-ipu in lehiaketako sari banaketa. Maialen Lujanbio bertsolaria arduratu zen sariak banatzeaz. Eta hartzaileen artean bi sakandar zeuden: Mattin Petriati Berastegi eta Itziar Razkin Lopez de Uralde.



Gari Altsasun, Berriaren 10. urteurrena ospatzeko

Bihar, larunbata, 20:00etan Iortia kultur gunean

Ez da amaiera (Elkar) izenburua du Garik martxoaren hasieran karrikaratu duen diskoa, bere bakarkako ibilbidean ekoizten duen zazpigarrena. Altsasun Migel Moyano gitarrajolearekin batera ariko da Gari, bere ahots beroa gidari. Biek defendatuko dute azken lana. Etxean kantuen zirriborroa harilkatu eta estudioan ondu eta borobildu zituen Garik. Kantuek hari bati baino gehiagori jarraitzen diote eta hainbat musikariren erreferentziak bildu ditu. Letrak, berriz, hainbat euskal idazlerenak dira. Kantariak adierazi izan du inoiz baino askeago dabilela.



atzean dagoen komunitatearekin egon eta urte hauetan guztietan emaniko laguntza eskertzeko.

Egitarau horren barruan kokatzen da legazpiarraren biharko emanaldia. Kontzertuaren aurretik Berria Taldeko ordezkari batek hitz egingen du, Berria zertan den azaltzeko. Segituan hamar urte hauetan Berriak bizitakoa biltzen duen bideo bat ikusteko aukera izanen da, Lorea Agirre kazetariak, Maialen Lujanbio bertsolariak eta Harkaitz Cano idazleak egindakoa. Ondoren aterako da eszenatokia Gari. Mank-en eta Altsasuko Udalaren laguntzaz antolatatu da kontzertua.

bazterretik

Juan Karlos Lopez-Mugartza

Andres bota zaneko barga

Badira hainbat modu herri baten historiara hurbiltzeko. Sakanako historia behar den bezala ezagutzeko ezinbestekoa da Jose Maria Satrustegi, Patxi Ondarra, Jose Maria Jimeno Jurio eta Rafael Carasatorreren lanak ezagutzea eta ohe ondoko mahaitxoan ale bat edo, gutxienenez, izatea. Izan ere, ahozko testigantzak eta liburu eta tokiak behar-beharrezkoak zaizkigu gure historia jabetzeko, baina behin baino gehiagotan ahaztu egiten zaigu beste bide eraginkor bat dugula gure iragana ezagutzeko: toponimia.

Toponimiari esker gauza asko jakin ditzakegu; adibidez, Dorraoko bargabatean Andres izeneko mutil bat bota zela, erori baitzen, edo handik bota zela, buruaz beste egin zuelako. Batzuen iritziz leku hartara askotan joaten zen galdutako ahuntzen bat edo beste bilatzera edota otsoak harrapatzera (beste

garaiak ziren, jakina; orduko otsoak lau hankakoak ziren eta ez bikoak oraingo batzuk bezala). Andres bota zaneko bargan bota zen, orduko gertakaria toponimian islatuta gelditu baita.

Era berean, jakin badakigu Lizarragan noizbait Diego izeneko bat bizi izan zela. Agian Andresen laguna izan zitekeena. Auskalo. Badakigu gizon hark gurdia bat zuela eta uste izatekoa da gizon hura oso pozik egonenez bere gurdia erosi berriarekin. Eman dezagun gizonak idi pareta eta guzti ere erosi zuela, eta aurreko gurdia zaharra, behiek bultzaturikoa, saldua zuela berria erosi ahal izateko. Berak, orduan, ez zekien zer gertatuko zitzaion, guk orde toponimiari esker jakin badakigu gizajoak gurdia handik gutxira galdutako zuela Diegoren karroa bota zana izeneko lekuan. Eta gaitzerdi karroa baizik ez bazuen galdu, eta ez bitzita bera, Andresen kasuan bezala.

Toponimoen bitartez Andres eta Diego bezalako beste sakandar

askoren gora-beherak eta istorioak ezagutu ahal izango ditugu; jakingo dugu, adibidez, Unanun artzainak egon direla betidanik eta Ahuntzak jeixten diraneko zelaian biltzen zirela; Bakaikun hiru hankako zaldi batek bazkatzen zuela Hiru hankako zaldia aldean; Iturmendin behiak ez direla edonon uzten, baizik eta Behia uzten denekoan; Ziordian gizon bat hil zela pago baten ondoan Gizona hil zaneko pagoa izeneko lekuan; Altsasun Andrea Galdu zan errekan izeneko lekuan andre bat galdu zela, eta ongi bilatu arren ez zutela inon ere aurkitu, ez Otsoa hil zanekoan, ez eta Ura hondatzen denekoan ere. Bukatzeko, eta gaizki iruditzen ez bazaizue, Andresen, Diegoren, Altsasun galdutako andrearen, eta Ziordian pago batetik zintzilika hil zen gizonaren arimen alde otowitz egiteko Arbizuko Sermoi egiteko arbolan bil gintezke eguraldi ona egiten badu, gero Sorgin errekarra joan eta bainu bat hartzeko.

Berria-k 10 urte

Hilaren 21ean egingen ditu 10 urte Berria egunkariak. Euskaldunon Egunkaria itxi berri zutela, erronka argi bat zuten: euskal egunkari bat abian jartzea. Milaka lagunek bat egin zuten proiektuarekin. Gerora ere handia izan da komunitatearen bultzada. Ezinbestekoa. 14.000 Berrialagunen sarea du egun Berriak. Urteurrenaren harira, hainbat ospakizun antolatatu ditu Berria Taldeak, proiektuaren

Eta On Egin!

Gariren musikarekin gozatu eta gero, afori eder bat dastatzeko aukera izanenda. Altsasuko Jate-txeen, Altsasuko Udalaren eta Bierrik Fundazioaren arteko elkar-lanaren ondorioz sortu den On Egin egitasmoak horretarako aukera ematen baitu. Izan ere, kontzertu joaten diren ikusleak sarre-ra erakuste hutsarekin %15eko deskontua izanen dute Biltoki, Basomutur, Arkangoa, Irubide, Iruñabide, Il Padrino edota Kaixo jate-txeetan afaltzerakoan. Kon-

tzertura sartzerakoan jate-txe bakoitzaren eskaintzaren berri zehatza ematen duen esku-orria banatuko da. On Egin egitasmoa Altsasuko Antzerki Amateur Zikloarekin batera jarri zen martxan maiatzaren 11n. Hiru larunbatetan antzerki-az eta mantel ederraz gozatzeko aukera eman zuen. Egitasmoaren eskaintza biharko emanaldiarekin despedituko da. On Egin egitasmoak kultura eta gastronomia lotuz, tokiko ekonomia mugitzeko asmoa du.



ITZIAR NAZABAL
ARTE ESKOLAKO ERAKUSKETA
Maiatzak 28 - Ekainak 16

ALTSASUKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA
KURTSO AMAIERAKO KONTZERTUA
Ekainak 11 - 19:00

GARI
EKAINAK 8
20:00

zure zitzada behar dugu

Frontoiko zeharbidia: z.g. 31800 Altsasu 948564272 - iortia@altsasu.net - www.facebook.com/iortia

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 55%	euria: 94%	euria: 80%	euria: 35%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 30%
Min: 12 Max: 19	Min: 9 Max: 15	Min: 9 Max: 15	Min: 9 Max: 18	Min: 11 Max: 21	Min: 12 Max: 21	Min: 11 Max: 18

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	27.6	1.5	31.6
Altsasu	23	3	19.8
Aralar	19.2	1.07	43.3
Urbasa	23	5	28.6

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
8	16	23	30

Acrylicolor

KOLOREA

SISTEMA BERRIA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

1. Zergatik Harley-Davidson motorra?

Harley-Davidson ez da bakarrik marka bat. Zerbait sakonagoa da; bizimodu berezi bat da. Gainera, kristoren soinua dauka, eta gustatzen zait ibiltzerakoan sortzen den soinua hori.

2. Nolakoa da bizimodu hori?

Kotxearekin bidaiatzen duzunean ezin dituzu paisaia edo herriak guztiz disfrutatu. Motorraren kontaktua oso zuzena da eta nabaritzen da usaina eta kaleko soinua. Askatasuna, azken finean. Motorretik disfrutatzen duzu.

3. Zerk ezberdintzen ditu Harley-ak beste motorrekin?

Beste mota batzuk badaude, baina lasai ibiltzeko motor garrantzitsua da. Adibide bat jartzearren, motor japoniar bat azkar ibiltzeko da. Motor bakoitza gauza baterako da eta Harley-Davidson-a bidaiatzeko da.

4. Nola irabazi du fama?

Amerikar marka bat da, oso berezia. Beste herrialdeetan ez dago horrelakorik. Rolls Royce gustatzen bazaizu bat bakarrik dago, eta

>> 11

galdera

Natxo Llamas

Harley-Davidson motorraren jabea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

Harley-Davidson-arekin berdina gertatzen da. Oso antzinakoa da. Bestemotatakoak badaude, baina Europarekin, BMW eta Sanglas oso antzinakoa dira, baina ez dira berdinak. Ezberdintasun handiak dituzte.

5. Nora joaten zara Harley-Davidson-arekin?

Lagunei bisita egitera joaten naiz, baita oporretan ere. Posible bada,



edonora.

6. Taldean ibiltzen zarete?

Normalean, bai. Lagun pila bat daukat leku ezberdinetan. Silver&Crew taldeko kidea naiz. Normalean motor kontzentrazioetara joaten naiz, baina, aurten, Txunkain festetan kontzentrazioa antolatzeko eskatu zidaten eta lagun batzuei deitu nien.

7. Eguraldi txarrarekin zer egiten duzue?

Zer egin moto batekin? Kostaldera edo Errioxara joan. Gustatzen zaidana da eguraldi ederrarekin ibiltzea. Baina, eguraldi txarrak ez digu bidaia baldintzatzen.

8. Zer mantentze lan behar du Harley-Davidson batek?

Motozikleta batek beti mantentze

lanak behar ditu: gastatzen duena gurpilak eta olio aldaketak dira. Normala da moto guztietan. Baina, motorra apurtzen bada, garestia da. Hala ere, Harley-ak motor apurtu ezina dauka, horregatik erosten ditugu horrelako motozikletak. Japoniarrak nahiko erraz apurtzen dira.

9. Inbertsio ona da Harley-Davidson bat erostea?

Garestiak dira. Baina, poltsikoaren arabera. Edozein moto da garestia.

10. Pertsonalizatu daitezke Harley-Davidson-ak?

Bai, gehienak bai. Nik horrela erosi nuen. Baina aldaketa handiak egin daitezke. Izaera ematen zaio. Motorra ez da bakarrik nire motorra, nire anaia bezalakoa da. Beste moto bat daukat etxean, baina mendian ibiltzeko da. Ezberdina da.

11. Herriko kaleetatik Harley-arekin ibiltzen zara?

Bai, eta gustatzen zait. Hasieran jendeak begiratzen zuen. Baina orain ohitu dira. Gainera, soinua herriko beste puntatik entzuten da.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?



Non egon dira maiatzeko Guaixearen azalak?

- 417. **Guaixea:** Urrezkoa bitxidenda (Irurtzun) eta Arkangoa (Altsasu).
- 418. **Guaixea:** Martiarena gaztandegia (Uhartea Arakil), Kixkur (Ziordi) eta Citroen San Miguel (Altsasu).
- 419. **Guaixea:** Baiza motor (Etxarri Aranatz) eta Sabeco (Altsasu).
- 420. **Guaixea:** Kaxeta liburudenda (Etxarri Aranatz) eta Pinpilinpausa (Altsasu).
- 421. **Guaixea:** Lizardi estetika (Etxarri Aranatz) eta Redin (Altsasu).

Maiatzeko saritua: Izaskun Jarones Bergera

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixea egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri
Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

2014

Egutegiaren eskaintza mundiala!

Mahai, poltsiko, eta horma egutegiak

irailaren 30era arte

bazkideentzat %5eko deskontua

948 564 275
publi@guaixe.net
publizitatea@guaixe.net

Guaixe KOMUNIKAZIOA

2012

2014